

-Jostarazleak-

 Zurtzurigaray, 40 urthe
 Guria , 18 "
 Beltzaran , 48 "
 Nicolas , bizar egilea
 Orro , herriko muthila.

Ohartzarriak- Bizar egile barne bat nahi da jostagailu huntako, bere mirallekin. Bi kadira. Mahain bat bizar egiteko eta ile mosteko tresna guziekin, bai eta ampoil zenbeitekin.

Zurtzurigaray eta Guri ederki jauntsiak dire; Beltzaran, langile bat bezala. Zurtzurigaray bizar eder bat badu, ilerik, Guriak ile badu bizarrik ez; Beltzaranek badu ile eta bizar. (Joseph Maury delakoak egin erdal jostagailu batek gogoratua da eskual jostagailu hau. Bijostagaikuek ikusteko guti dute haatik elgarrekin!)

 - A K H E L A R R E N -

(Eskual jostagailua)

I

(Chichtuz, bizar nabalaren chorrochten ari da zirri sarra Mikolas, Zurtzurigaray sartzean)

Zurtzurig..Agur.

Nicolas....Agur, jauna : zer da zure zerbitzuko ?

Zurtzurig..Ez dautzut batera zerbitzurik galdetzen! Ilea bi haichtur ukaldiz b behar dauzkidatzu pagamendutan mostu. Ez dut bertzerik nahi!

Nicolas....Ikusten dut zurekin chuchen mintzatu behar dela!

Zurtzurig..Elhe gutichago hain nahi nuke! Nun behar dut jarri ?

Nicolas....Eskuineko kadira hortan...

(Zurtzurigaray jarri denean, hitzik erran gabe Nicolasek bizkarretik ematen dio oihu churi luze bat gorphutz guzia hartzen diona eta chapela burutik khentzen, itze batean dilandan emateko.)

Zurtzurig..Norat deramazu chapel hori ?

Nicolas....Itze hortarat jauna : ez duzu naski naki chapela buruan duzularik motz detzatzudan ileak ?

Zurtzurig..Mugi zaite bederen hortik !

Nicolas Zer erran dautazu, ileak behar daukitzudala mostu ?

Zurtzurig (motz-motza)Baletz!

Nicolas (irriz)Ondo bat ez dautzut ikusten !

Zurtzurig Aski ditutzu bilhatzea! etzinuke naski nahi bat bertsearen ondotik eskuan nik hartu eta erran dezazudan : huna bat, motz zazu : huna bertzea, motz zazu !

Nicolas Jauna, iduritzen zaut hau ahanzten duzula : ni naizela etche huntako nausia eta susartak ez ditudala maite ! Ethorri bidetik zoazi!

(Eta mahainaren gainean jarririk, sabaltzen du Eskualduna eta hasten da irakurtzen.)

Zurtzuriga Noiz hasi gogo duzu nere ileen mozten ?
Nicolas Sortzen direnean...
Zurtzuriga Nere ileak moztu gogo dituzu ala ez ?
Nicolas Sor ditzen nagoela, jaun maitea!
Zurtzurigaray Nahuzu zure trufa zozoak nik lastersko sar arazten dauzkizudala ?
Nicolas Ez ahal nauzu gatzik eta bipherrrik gabe janen ?
Zurtzurigaray Ez, etzaitut janen, bainan ba pherekaldi bat ederra emanen!
 (Hemen, Paulino iduri gure gizona ematen da bi ukabilak gora,
 Nicolasi buruz) Egizu orai bidez erdi!
 (Hainbertzenarekin sartzen da Guria. Berehala chutiturik, Nicolase
 jar-arazten du bigarren kadiran, Zurtzurigaray berean jarri baita.)

II

Nicolas Zer nahi duzu, lephoko ile hori moztea ?
Guria Lephea moztea ?
Nikolas Ez, lephoa, ez, bainan lepho gaineko ile horiek.
Guria Lephoko ileak utziko ditutzu hor!
Nikolas Zer nahi duzu beraz ?
Guria Bizarra egitea.
Nikolas (hurbildik Guriari behatu ondoan) Zuri bizarra egin ?
Guria Nori ba ? Aita Sainduari ?
Nikolas Ez dautzut bizar ondorik ikusten!
Guria Bichta laburtua baduzu, aski ditutzu berinak ematea! Etzinuke
 gaizki irri eginen, neronek erraten bassautzu : huna ondo bat,
 huna bertzea! Baduzu bederen bizar nabalik ?
Nikolas Eta zuk baduzu bizar ondorik ?
 (Egundaino bezala mahainean jarten da Nikolas eta berritz sabaltzen
 du Eskualduna.)
Guria Ba edo ez egin gogo dautazu bizar hau ? Zeren beha zaude ?
Nikolas Zeren beha nagon ? Bizarra sor dakizun...
 (Demora huntan guzian, Zurtzurigaray batá beha, bertzeari beha,
 ahoa idekitzen zuteneko, artatik sartzen da.)
Zurtzurigaray Enuen den gutieneko dudarik! Jauna, ez dautzu bizarrik egin nahi
 zuri, oni doidea ez daut ilerik moztu nahi izan! Zer diozu
 chori hortaz ?
Guria Den bezalakoak pherekaldi bat ederra merezi lukeela !
Zurtzurigaray Gutik egina du ez baitiat jada eman!
Nikolas Zuen mehatchuek ez dautet odola hainitz itzularazten!
Guria Ez othe ? Hurbil zaite beraz !
Zurtzurigaray Egizu bidez erdi !
 (Bigak ematen dire chutik ukabilak gora)
 Ha, ha, ha, ha! Enuen aspaldi holako zinemarik ikusi etche huntan!
Nikolas (Tralala eta tralala kantuz edanskoa sartzen da Beltzeran, eta
 bi ukabilkatiek beren kadiretan jartzen dire lasterka. Mozkor bat
 bezala gorasko mintzatuko da Beltzeran. Beoak ibiliz, erhotuak
 balite bezala elgarrekin ahapetik mintza ditzake orai Gurea eta
 Zurtzurigaray.)

III

- Mikolas To, aspaldiko Beltzaran! Hainkoak igortzen zaitu! Hain chuchen lanik enuen goiz huntan!
- Beltzaran Bero beroa heldu nitzautzu, jaun erretorari zku bat ikatz eremara eta harekin gosaldurik.
- Mikolas Jaun erretorarekin gosaldurik ?
- Beltzaran Ez, berarekin, ez, baina gobernantarekin !
- Mikolas Eta, futcho, ageri du batere ez duzuela gaizki gosaldurik !
- Beltzaran Patzarreko, kazkarot olio, orotarik edan dugu eta! Heup!
- Mikolas On dakizula, adichkidea. Baina zer nahi duzu, ile hori moztea ala bizarra egitea ?
- Beltzaran Ilea moztea naski lehenik, mamu zenbeit baituket hor alha!
- Mikolas Oro kondenatuko ditugu hiltzerat lehenik, gero egiteko bizarra!
- Beltzaran Eta orduan nik iduriko dut izarra ! Heup!
- Mikolas Jaun auzapezaren alaba bera choratuko duzu orduan!
- Beltzaran Heup !
- Mikolas (Kadiretarat hurbildurik, polliki :) Jaun hautarik bat othoiztuko dut haatik kadira huts dezan zu jartzeko !
- Zurtzurigaray (oihuka) Ni bederen enaiz mugituko ilea moztu ez dautazuno!
- Guria Are gutiago ni bizar hau erori arte !
- Beltzaran Nik banuke astia, Mikolas!
- Mikolas (oihuka) Nor da etche huntan nausi ? Beltzaran, zuri ba ilea moztuko dautzut eta bizarra eginen, baina bi ausart hauk doazila nahi duten leharat !
- Bigak Ausartak gu ?
- (Eta tank chutiturik, berriz ematen dire bigak ukabilak gora; Beltzaran ere ba heyeri buruz, aireari ukabilka, Mikolasek besoa gelditu arte.)
- Mikolas Beltzaran, zerbitzu bat egin behar dautazu, nik ordainez bi pinta arno hoberenetik emanen daukitzut!
- Beltzaran Heup! (Zartzen dire berriz bertze bigak.)
- Mikolas Badakizu nun egotenden Orro, herriko muthila ?
- Beltzaran Ez dakit ba ? Atzo egina daut azken berbala, bederatzi orenak ondoan athe aintzinean "Andre Madalen" kantatu diotalakotz!
- Mikolas Errozu berehala hunaraino galdetzen dutala. Zoazi salto batez.
- Beltzaran Salto batez ez dakit (salto bat egiten du) baina behar diren guziak eginen ditut. Bi pinta.arno! Heup! (Badoa kanporat)
- Mikolas (zarririk daudenetar hurbildurik)Eta orai zuen aldi jaunak: segur etzauzte bat eta bertzea hemen atchemanen eguerdik!
- Zurtzurigaray Amor ematen duzu beraz azkenean ?
- Guria Ordu zuen!
- Mikolas Bada bertze zerbeit ordu duenik ! Leku hau huts dezazuen! hortche baita musde Orro, herriko muthila, ikusiko dugu eian bethi toki berean duzuen birika!
- (Sartzen da Orro. Erran gabe doa, orroaz mintzatuko dela...)

IV

- Orro Zer da berri etche huntan ?
- (Saltoan chutitzen dire Zurtzurigaray eta Guria, eta badoazi Orroren alde alderat; Mikola ere ba.)

Hiruak Zer den berri ?
Orro Ichilik !... Mintza zaizte bat bertzearen ondotik !
(paper luze bat bai eta alimaleko lapitz bat atheratzen ditu sakelatik) Nork nahi du lehen mintzatu ?

Hiruek Nik! Nik! Nik!
Orro Nik eta mik, oro ichilik! Bat mintza bedi bakarrik lehen!
(Zurtzurigaray erhi puntaz erakutsiz) Zuk iduri baituzu zaharre-
na, zu mintza zaite beraz! Gazte hori doala jartzerat! Zu ere
ba, Mikolas! Eta batek ez bertzeak ez duzue berritz ahorik ide-
kiko, nik erran arte...
(Guria badoa bere kadiran jartzerat; Mikolas mahainerat)(Zurtzu-
rigarayi orduan :) Zure aldi da beraz !

Zurtzurigaray Bi oren handi badu hementche nagola !
Orro Ichilik! Nik ez dautzut galdetzen zenbat demboia duen hemen
zarela ! Hasteko, zer duzu deithura ?

Zurtzurigaray Zurtzurigaray.
Orro Zer ?

Zurtzurigaray Zur-tzu-ri-ga-ray!
Orro Nundik atheratua duzu izen hori ? Zurtzurigaray!
Zurtzurigaray Aitak utzia daut...
Orro Pentsatzen dut ez duzula Italiako erregeak utzia ? Etzaitela
herriko muthil batez trufa, chuhur baduzu! (Lapitzarekin zirri
zarra arizan ondoan) Eta zure izena ?

Zurtzurigaray Klichtro !
Orro He ? Ez dut egundaino izen hori aditu! Nor zinuen aitatchi ?
Zurtzurigaray Donibene Mendiburutegiko nausia...
Orro Errozu Mendiburutegiko nausiari ene partez ez dadiela hura ere
herriko muthilez trufa eta, berbal bat nahi ez badu, bertze bat
eman dezazun bertze aldian!

Zurtzurigaray Erranen diot segurki.
Orro Ichilik! Ez dautzut nik galdetzen erranen diozun ala ez! Bainen
zertan zabilta zu etche huntan ?

Zurtzurigaray Ilearnen mozarazterat ethorria naiz...
Mikolas (artetik) Eta ez du ilerik !
Orro Ichilik, zu! Hurbil zaite mintzatu behar duzunaz geroz! Zer
erran duzu, ilerik ez duela ?

Mikolas Ondorik ez du !
Orro (orroaz, bi besoak zabaldurik) Hori da ! Etzaio aski nitaz irri
egiteko Zurtzurigaray eta Kalichtro deitzea, ilerik ez izanki
eta ilearen mozterat behar du oraino Akelarrerat ethorri! Nun-
beit bada zerbeit!

Zurtzurigaray Deusik ez da nihun!
Orro Zer, deusik ez dela nihun ?
Zurtzurigaray (bizi bizia) Ez du balio hola kecha zaiten! Huna zuri ere zer
erraten dautzutan, futcho! Ilearn mozterat ethorri naiz hunat
eta enaiz hemendik joanen ilea mozturik baizik!!!

Orro Ez joanen ? Ez joanen, zu ? Ez diozula herriko muthil bat
amor emanen ? Berbal bat egiten dautzut beraz(Eta bere lapitza
ahoan bustirik, mihia kampoan zirri-zarra hasten da) Ez
duzula amor emanen ? Nik erakutsiko dautzut zer den legea!

Mikolas Ederki egina!
Orro Ichilik! Ez dautzut zuri ere galdetzen ongi egina den ala
gaizki! Kalichtro Zurtzurigaray, berbal baduzu, zoazi jartze

- (Hau badoa irriz)(gibeletik Orrok) Irri egiten duzu oraino ? bigaren berbal bat egiten dautzut, herriko muthil batez irri egin duzulakotz!(Zirri-zarra hasten da berritz)
- Zurtzurigaray Orro Hau bederen ez dut ebatsia!
Ichilik! Nik ez dautzut galdetzen ebatsia duzun ala ez! Zoazi lastersko jartzerat!
(Zurtzurigaray badoa)(arte hortan Guria beha baitago, irriz hura ere, Orro oihuka hasten zaio) Eta zuk zer duzu zure apho harmatu begiekin neri behatzeko ? Hurbil zaite hunat(Hurbiltzen da Guria) Zer ditutzu izen deithurak ?
- Gurai Orro AntonGuria.
Gurai Orro lapitza aho bustirik zirri-zarra)Nun sortua ?
Orro Amezpetan.
Orro Amezpetan ? Etzinen bertze guziak bezala Akhelarren sortzen ahal, zu ?
- Guria Orro Nik ez dakit! ~~XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX~~ dut naski hortan hobenik!
Orro Batere ez dakit! Zertabat ethorria zinen hunat ?
Guria Bizarraren jaun huni eginarazterat!
Mikolas Eta ez du bizar ondorik!
Orro Ichilik, zu! ~~XXXXX~~ Zer erran duzu ezduela bizar ondorik?ederki!
Zure laguntto horri bezala Anton Guria zuri ere egiten dautzut berbala! Zoazi jartzerat! Eta laster gero!
- Mikolas Orro Zer herriko muthila dugun Akhelarren!
I-chi-lik, Mikolas, zuk ere berbal bat nahi ez baduzu, herriko muthilari behar gabe dembora galarazirik! Eta errazu ? Jaun gaha dembara galarazirik! ~~Etia XXXXXX~~ & horiek bi oren huntan hemen direnaz geroz eta hortako ethorriak ; bati berehala ilea moztuko diozu, bertzeari bizarra eginen!(Zurtzurigaray erakutziz) Hunek ez badu ilerik egiozu bizarra (Guria erakutziz)Horrek ez badu bizarririk motz ilea! Eta zure onetan mugi hortik(Haichtur eta bizar nabalekin Mikolas badoa orduan jariak dauden bi kampotarretarat)(Orro ~~XXXX~~ jarriak harat eta hunat abiatuko da, kopeta beltz)
- Mikolas Zurtzurigaray Jaunak, zoinen aldi da berraz ?
EZ dugu Guriak eta nik gehiago batere zure beharrik : milesker (Eta chutiturik ilea estaltzen dion barru zuri zaharra khentzen du) Ikhusten duzu ?
- Mikolas Orro Zer da ichtoria hau ?
Orro (Tente beha) Hirugareen berbal baten ondotik zabilta ?
Zurtzurigaray Batere, Orro! Nere idazlea irriz dagoela ikusten duzu! Bada zeren segurki. Huna nor naizen ni, irakur zazu paper hau! (paper bat ematen dio eskuetarat eta dal dal dal iharra lotzen zaio Orrori)
- Orro Zer etzare Zurtzurigaray Kalistra erran dautazun bezala? Bertze berbal bat eman beharko othe dautzut ?
- Zurtzurigaray Orro Ez dut uste! Irakur zazu paper hori!
Orro Jesu! Maria eta josepe! Baionako hede churien aintzindaria! Galdua naiz!!!
- Mikolas Zurtzurigaray Ni ere ba!
Orro Ez bat ez bertzea, adichkideak! Mikolas, nik dautzut zuri bar-kamendu galdetzen, goizalde guzia hola galarazirik! Baionako herriko muthil on baten bilha nindabilarrrik, Orroren fama aditu dut, eta nere begiz ikusi nahi izan dut zer herriko

muthil den!

Mikolas

Ez ditake hoherik! (Bertze alderat beha) Edo tzarragorik!

Zurtzurigaray

Ez, ez ditake hoherik! (Eskua kachketan Orrok slutatzen du aintzindaria) Hemendik ilhabete bat gabe, aintzinamenduz Baionan izanen da!

Mikolas

Ez baititake ohore ttipia Akhellarreko herriaentzat!

Zurtzurigaray

Orro, zure emazteari egun berean berri on hori ematen ahalko diozu! Pentsatzeko da haatik azken egun hautan zenbeit berbal eginen duzula oraino Akhellarren! Gu, bagoazi orai! Agur!
(Guria eta Zurtzurigaray atheratzen dire, Orro eskua kachketan dagoela)

Mikolas

Hau da egun ederra, Orro! Akhabo egungo berbalak!

(Hainbertzenarekin Beltzaran sartzen da Andre Madalen kantatuz)

Orro

Legea lege da, Mikolas! Huna hemen jada baten bitea! Beltzaran; berbalo egiten dautzut mozkorra ibilki zare lakotz bidean!

Beltzaran

Eni ? Zertako eman dautet edaterat ?

Orro

Nahi duzu bigarren bat ?

Mikolas

Egundaino egia izanen da beraz, arrain handiek janen dituztel ttipiak! Gaizo, Beltzaran!